

1. PRAKTIKA:

EGUNKARITIK HARTUTAKO ALBISTEA IRRATIRAKO EGOKITU

Normalean, irratirako albiste bat idatziko dugunean ez dugu egunkaritako bat egokituko; irratian azaltzen diren albisteak informazioaren itsasotik “harrapaturiko” arrain freskoak dira; egunkarietakoak, aldiz, arraindegian erositako “arrantzuak”. (Ezberdintasunak ez dira hain nabariak egunkari digitaletan, berehalakotasuna baita azken hauen ezaugarria, duela gutxira arte irratiaarena soilik zena).

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK ALBISTEA IDAZTERAKOAN

- Ez dugu zertan egunkarietan erabiltzen den egitura erabili behar, hau da, buruz beherako piramidearena.
- **Informazio erredundantea** emango dugu behin eta berriro, eta datu berriak eman ahala emandakoak gogoratuko ditugu, honako egitura hau erabilita:

SARRERA EDO HASIERA: azken datuari lehentasuna emango diogu. 5 W-tako bati edo biri erantzungo diegu, baita ez guztiei (NOR, ZER, NON, NOIZ, ZERGATIK???)

DATU BERRIA + DATU ERREDUNDANTEA

DATU BERRIA + DATU ERREDUNDATEA

...

AMAIERA: DATU GARRANTZITSUENAK LABURBILDU eta ITXI

- Idazkerari dagokionez, kontuan hartu irratidazketari buruzko azalpenak eta aholkuak: **ahozko hizkuntza erabili.**